



Erromanako Eliza ortodoxoko kideak Derioko San Kristobal eliza zaharrean elkartzen dira domeka eta jaiegunean. MONIKA DEL VALLE / ARGAZO PRESS

Bizkaian gero eta gehiago dira katolikoa ez den beste sinesmen batzuetako fededunak. Horieta-
 batzuentzat zaila da fedea praktikan jartzea. Erlijioen arteko gatazkek ere eragina izaten du
 haiengan. Elkar ezagutu eta ezinikusiak gainditzeko, Bilbon sinestun talde bat hilero batzen da.

Jainko beraren seme-alabak

Ibai Maruri Bilbao Bilbo

A benduaren 25etik urtarri-
 laren 6ra bi-
 tartean, Jesu-
 sen jaiotza eta
 jazoera haren
 ingurukoak gogoratzen dira, ur-
 tero. Euskal Herriko eta mundu
 osoko eliza katolikoetan ospaki-
 zun handiak egiten ari dira egu-
 notan. Baina ez dira bakarrak.
 Derion mila lagun inguru elkartu

ziren, Natibitate egunez, Espiritu
 Saiinduaaren elizan. Garai batean
 San Kristobalen omenezko eliza
 katolikoa zen, baina, duela zortzi
 urtetik hona, Bilboko Elizbarru-
 tiak Eliza ortodoxoaren Bukares-
 teko Patriarkatuaren esku utzita
 dauka. Petru Davi moldaviarra da
 hango abadea. «Hasieran Bego-
 niako moja agustiindarren komen-
 tuko elizan elkartzen ginen. Hura
 laga zigun Eliza katolikoak. Baina
 urtebeteren ostean utzi egin be-
 har izan genuen. Gure parrokia

jarduerak mojen lasaitasuna oz-
 topatzen zuten, eta eliza honetara
 etortzea proposatu zigun gotzain-
 degiak». Dioenez, sekula ez dute
 arazorik izan bizilagunekaz. He-
 rrian «oso ondo» hartu dituzten
 irudipena dauka.

1054an banatu ziren Eliza kato-
 likoa eta ortodoxoa, alita santuak
 eta Konstantinoplako patriarkak
 elkar eskumikatu zutenean. Milla
 urte eskasetan harreman txarra
 izan dute, harik eta 1964an Paulo
 VI.a alita santuak eta Anetagaras

patriarkak Jerusalem elkar be-
 sarkatu zuten arte. Abendu hasie-
 ran, Frantzisko alita santua Tur-
 kiarra joan zen, egungo Konstanti-
 noplako patriarka Bartolome
 bisitatzera. Biek nabarmendu zu-
 ten elkar ulertzea gero eta gertua-
 go dagoela. Davi ere bat dator.
 «Harreman ona daukagu katoli-
 koekaz. Uriarrilean elizen bata-
 sunaren aldeko astea egiten da.
 Eliza kristau guztiekaz batera, er-
 lijio arteko otoitzaldi batean parte
 hartzen dugu, Bilboko katedral

katolikoan». Ostera, aitortu du
 kristau ez diren beste erlijioekaz
 ez dutela hartu emanik.

Eliza ortodoxoa patriarkatue-
 tan banatuta dago. Hala, herrial-
 de bakoitzak bere Eliza dauka.
 Autonomoak dira, baina guztien
 buru sinbolikoa da Konstantino-
 plako patriarka ekumenikoa. Ho-
 rregatik, nahiz eta Derioko eliza
 Bukaresteko Patriarkatuarena
 izan, errumanlarak ez diren Biz-
 kaiko beste ortodoxo batzuk ere
 biltzen dira. «Domeka normale-

den. Eine weitere Frage stellt sich: Wie kann man die Produktion von Kunststoffen steigern? Hierfür sind verschiedene Maßnahmen erforderlich, die in der folgenden Tabelle dargestellt sind. Eine weitere Möglichkeit besteht darin, die Produktion von Kunststoffen zu diversifizieren, indem man verschiedene Arten von Kunststoffen herstellt. Dies kann die Produktion von Kunststoffen steigern und die Abhängigkeit von einem einzigen Kunststoff verringern.

[illegible]

Geroagokoa da Eliza katolikoa-
ren eta protestanteen arteko ba-
naketa. Hala, Eliza luterano, bap-
tista, kalbindar eta enparauek
egutegi gregorianoa erabiltzen



Katolikoek ez harreman ona dugu. Eliza kristau guztiek ez batera, erlijio arteko arteizaldi batean paila haritzen dugun»


Petru Davi
Apaiz ortodoxa

«Merriñarek ez dute arazorik
guzuz. Bilhoko Udalak,
arazoi politikoengatik, hiririk
kanpera aterapahi gaituz»

Juan Francisco Muela
Artzain protestantea

ditte. Baina sinesmenetan nabar-
menagoak dira ezberdintasunak.
«Gabonak etxean ospatzen dit-
guz, familiar, Ez dugu gurtza eklin-
tzarik egiten tenpluan», azaldu
du Juan Francisco Muelak. San-
tutxuko Kristau Komunitate
Ebanjelikoa izeneko tenplu bap-
tistako arzialna da. «Guk ez dugu
santurik eta Ama Birjinari ospa-
tzen. Mezarik ere ez dugu; dome-
kan gurtza egiten dugu». Eta as-
teguzen ere elkartzen dira.

Azken urteetan asko ugaritu dira Eliza protestanteen jarraitzaileak. Dena den, Muelak argi



Musulmanek batzuek arazoak izaten dituzte eguneroko oinortzak jendarean eriteko. Meskita berriek ere istiluak sortu dituzte Bilbon. M. DE VALLE/ASO

utzi gura du ez direla etorkinen elizak. «Bizkako zaharrena duela 125 sortu zen. Joera luteranoa duen Espainiako Eliza Ebanjelikoarena da. Zabalburu plazan dute tenplua». Etxebizitza eraikin bafeko lokalean, hain zuzen,

Joan den mendearen erdi alde-
tik, halako tokietan eraiki dira er-
lijio guztietako gurtza leku gehie-
nak; baina Elizak katolikoen pa-
rrokiak ere. Bilboak Udalak
horiek guztiak arautzeko orde-
nantza onartu du aurtu-

Haren arabera, orain ar-
tekoel eutsiko zaie, baina
aurerantzean ezingo da
berririk erakli etxebizi-
tzen azpian. Udalak «bi-
zlagunaren ezinegonari»
erantzun gura izan diola
argudiatu du. Muela ez
dator bat. «Herriarrek
ez dute arazorik gugaz.
Udalak hiritik kanpora
atera gura gaitu, arrazoi
politikoenagatik». Orden-
antzaren aurkako erre-
kurtsioa ipini zuten EAE-
ko Auzitegi Nagusian.

eta irabazi egin dute. Balna udalak daborduko egokitu du arautegia epalleek esandakora. «Jarrera liskartsua dauka gugaz».

Muelak esan du Bilboko zenbait lekutan istiluak izan direla meskitatu ireki gura izan direnean. «Agiar posible da gurekiko eta gure templuekiko abegi hobea izatea, gu ere kristauak garela. Musulmanel beste begi batzuek bezagutiz zaien». Usmann Muhammad Miribillañ bizi da. Orantzu etorri da Sudandik Bilbora. Ez du beharrik aurkitu, eta bien bitartean ikasten dabil. Gaz-

terela eskolak jasotzen ditu, eta Lanbideak eskalintzen dituen ikas-taroei ere badabil. Salatu du irakasle eta ikaskideek azaroak dituela musulmana delako. Islama egunean bost aldiz oitotz egiteko agintzen du. «Etxean eta meskitan egiten dut errezo; baita eskolan nagoenean tokatzen ba-zait ere, eta jendeak txarto har-tzen du. Ez dute gustuko musul-inen praktikantea izatea». Berak bizitakotik ateratako ondorioa da hori. Eta iruditzen zaio eskulgi-zartean, oro har, musulmanak ez direla ondo hartzen. Beharreen ibiliko balitz arazo larriagoak izango litzukeela sinetsita dago, galnera. «Ezingo nintzateke bar-tuan meskitera bane».

—

Ezagutzatiki elkarbizitza
Garai barden kristau sinesmen ez-berdinen artean izan diren gataz-
kak oraindik bizirik daude mu-
sulmanen artean. Sunten eta xil-
tinen arteko istiluak ez dira
urruneko kontu hutsa. Muham-
meden arabera, Euskal Herriari
ere ez dute hartu-eman onik eu-
ren artean. Talde bakoitzekoak
euren aldetik bazten dira otoitz-
rako. Mingarri egiten zaio hala-
koetaz berba egitea. Ezinlukiak
gaitudituko diren sasola iristea
gustatuko litzaioke.

Asmo horregaz sortu zuen Jesusen Konpainiaren Ellacuria fundazioak Diaritzeko taldea. Xabier Zabalo apaiz jesuita da burua. Hainbat erlijiotako sinestuenak diren bizkaitar talde bat elkartzen da haregaz batera. Hileko hirugarren domekan elkartzen dira, 17:00etan, Arrupe etxean. 2007an sortutako eritasmoa da

«Batzuek besteak ezagutzea da helburua». Haren esanetan, euren artean lotutako errespetua eta begirunea gizarera zaballzea gustatuko lizateke. Besteak beste, urtero egutegi berezi bat argitaratzen dute, erlijio guztiekin ospatzen dituzten festak jasota.

«Hartara, gure bizilagunak zerbait ospatzen daudela jakin dezakegu». Muhammad oraindik ez da agertu halako bilertareri, baina aitortu du baduela gozoa. «Inte-



Etkeen eta musikaren gitea dut
errezo; eskola mago onean
tokeak bazterrean, eta
jendeak barto hartzen du.

Usmann Muhammad
Musu'man fededuna

«Jaliko heraren some-alabale
gara, nahiz eta herengan
sinesiko eta fedea bizitzeko
modu ozkerdihak dituzun»

Pedjam Massarrat
Bahai fededuna

resa sortzen dituzberdinen arteko
elkarbizitza nola egiten duten po-
sible ikusteak».

Bilera horietan «inaitasunez eta errespetuz» hartzen dute elkar. Hala dio Pedjam Massarra tek. «Iranen jaio nintzen, eta 16 urteagaz etorri nintzen Bilbora. Orain 59 ditut». Osakidetza ko medikua da, eta Bahai erlijiojoko fededuna. «Hemen oso ondo hartu gaituzte beti, baina Irandik ihates egin behar izan genuen. musulmanek debekatu egiten dute Islama ez den beste erlijio batean sinestea». Erlijio gaitza da haren.

na; 1844an sortu zen. «Gutxi
gara, eta munduan zehar ibiltzen
gara gure erlijioko kiderik ez da-
goen herrialdeetan fedek ezabal-
tzen». Kontinente bakoitzean
tenplu bakarra dute. Europakoa
Alemanian dago. Eta, horrez
gain, fededun talde handia duten
hiritan elkartzeko zentroak di-
tuzte. «Bizkalan gutxi gara, 30
bat. Horregatik, exetean biltzen
gara otolitzarako edo festak ospa-
tzeko». Hurrengoa martxoaren
21ean izango dute: Urte-
berria. «Alfonbra denda
bat du familiak. Egun
horretan itxita edukiko
dugu. Baina nik ezingo
dut jai hartu lanean». Lan-
bidea eta fede bete-
beharrak uztartzen aha-
legintzen da.

Inguruan denek ezagutzen dute Masarraten sinismoa, eta inol ez du istilurik izan inogaz. Haren ustetan, ezjakin tasuna dago gaizki-uler-tuetan eta ezinikusien oi-narrian. «Elkar ezagu-tzean, tolerantzia falta ere desagertu egiten da. Elkarbi-ritzak besteak zu bezalakoak direla onartzer a erooten zaitu, denok berdinak garena sinestera». Ba-haisinoaren jarraitzaileek mun-duko erlijio guztiak bakarri dire-lapentsatzen dute. «Eskolan eta-pak dauden bezala, erlijioetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Kristautasuna judaismoaren se-gida da; Islamak horiei jarraitu zien. Guztiok jaungoiko beraren seme-alabak gara, nahiz eta ha-rengan sinesteko eta fede a bi-ztizeko eta ezberdinak ditugun».